

A L L E R G - E A T

Idea hau aukeratu dugu gure artean egoera hau askotan ikusten dugulako eta gainera gure taldean ere egoera hau bizi izan dugu. Arazo hau izanda ikusten dugu dauden aukerak oso gutxi direla eta oso informazio gutxi dagoela honelako egoera sufritzen dituzten pertsonei laguntzeko. Horrekin batera ikusi dugu pertsona hauek besteek dituzten aukera berdinak izateko eskubidea dutela, horregatik behar bat dagoela sentitu dugu eta hau izan da pentsatu duguna.

GURE IDEIAREN DESKRIBAPENA:

Alergiko eta elikadura-lehentasanak dituztenei bideratutako aplikazioa da gurea. Bertan, jatetxe jakin batzuen (gurekin hitzarmenak egin dituzten) kartak eta menuak agertuko dira, haien plateren alergenoen eta ezaugarrien informazioarekin. Aplikazioaren erabilpena errazteko, bai etxean (aplikazioak izango duen bilatzailean bilatzen) bai jatetxean (bertako kartetan jarriko ditugun QR kodeak eskaneatuz) ikusi ahal izango da informazioa.

Horrez gain, gure aplikazio (eta webguneak) hainbat zerbitzu gehigarri eskainiko ditu bezeroentzat. *Freemium* bat izango dela kontuan izanda, zenbait tarifa ezberdin ordainduz gero (mailaka edo) erabili ahalko dira. Honako hauek dira batzuk: profila pertsonalizatu ahal izatea (jattetxe gogokoenak jartzeko aukera, alergia analisien kontrola eramateko aukera...), jattetxeen inguruan komentarioak egin ahal izatea edo zure gustu eta beharrekin bat egiten duten jattetxeak aurkitzeko algoritmoa.

Jattetxe eta establezimenduetarako ere beste erreminta batzuk izango ditugu, haiek erabili ahal izateko. Nagusia, aholkularitza zerbitzu bat izango da, non nutrizionista talde batek haien menuekin lagunduko dien, alergikoentzako aukera gehiago sortuz edo jada dituzten aukerak aldatuz pertsona gehiagoren kontsumorako. Errezetak eta sukaldatzeko ikastaroak ere eskainiko ditugu (bereziki alergenok ez dituzten errezetak eta teknikak irakasteko).

